




ZARAUTZ 2021-2022 IKASTURTEA

Hemezortzi urte pasa dira Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen hasi ginenetik, egun **Eskolako Agenda 2030**ean bihurtu dena. Agenda berri honetan **Garapen Jasangarrirako 17 Helburu** finkatu dira eta, aurtengoa, iazko helburu berdina landu dugu, 15. helburua hain zuzen ere: **LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZIA**. Oso helburu zabala denez iaz basoak landu genituen bezala, oraingoan larreetan, zelaietan eta larreetako loreetan jarri dugu arreta.

2021-2022 ikasturte honetan, **Zarauzko 7 ikastetxe** parte hartu dugu Eskolako Agenda 2030 programan: Antoniano ikastetxea, Lizardi BHI, La Salle ikastetxea, Orokieta HLHI, Oteitza Lizeo Politeknikoa, Salvatore Mitxelena Ikastola eta Monte Albertia Lanbide Heziketako ikastetxea. Etapa ezberdinetako ikasleak izan gara protagonistak, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Hezkuntzakoak. Guztira, 3.500 ikasle inguru.

Jarraian, aurtengo gaiarekin loturik burututako jarduerak aurkeztu nahi dizkizuegu.

HH

Bizidunekin jolasean

Gelan inguruko zelaietan aurkitu ditzakegun landare zein hegazti arruntak behatu ditugu liburu ezberdinak erabiliz. Ezagutzen genituen landareen zein animaliatxoaren izenak esan ondoren, berezko izena zein den ikasi dugu. Ibilalditxo bat eginez, bidean ikusten genituen landareak identifikatu ditugu. Torreioian eta Itxasmendiko zelaigunean aritu gara. Argazkiak ateratu ditugu eta horma-irudiak osatu ditugu ezagutu ditugun landareak eta hegaztiak.

ZELAIK, LARREAK ETA LANDARE ITSUTASUNA

15 LEHORREKO
EKOSISTEMETAKO
BIZIA





LH 1-2

Belazeetako loreak

Gelan aurkezpena ikusi dugu. Ondoren eskolan kanpoan dagoen zelaira joan gara eta bertan dauden landare, animalia eta ingurua aztertu ondoren, ariketa batzuk landu ditugu. Landare batzuk ezagutu genituen eta ikusi genuen neguan eta udaberrian dagoen aldea. Zomorro batzuk ere aurkitu eta aztertu genituen eta azkenik, geletan talde bakoitzak herri diagnostikoa egiteko fitxa osatu zuen.

Zomorro eta loreen kateaz kontzientziatu gara. Konturatu gara loreak ez badaude ez dela zomorrerik egongo eta zomorrerik ez badago, lorerik ere ez. Belarra luzea utziz gero, loreak aterako dira eta animalia gehiago inguratuko dira belazeetara.

LH 3-4

Baserrian belar ugar

Belardi, larre, soro bezalako hitzen esanahiaz hitz egiten hasi dugu jarduera. Bi belaze moten argazkiak konparatu genituen; bat moztu gabekoa eta bestea moztutakoa. Gure inguruan ditugun belardien ezaugarriak aztertzeko baliagarria izan zitzaigun. Eskola barruan polinizatzaileei buruz jarduera batzuk ere egin genituen belardian horien garrantziaz jabetzeko.

Ondoren, eskolako baratzea aprobeztatzuz, lau lur pusketa atera genituen lurzorua atalak analizatzeko asmoz, bertan dauden sustraiak, ornogabeak eta abar behatuz. Lurzorua geruza ezberdinak ikusteko litro bat ur lurrarekin nahastu eta horren ondorioz gertatzen zena ikusteko esperimntua egin genuen. Aurrez hipotesia idatziz eta metodo zientifikoaren metodologia jarraituz emaitzetara iritsi arte. Oso jarduera polita izan zen.

Gelaz kanpo eskolatik gertu dagoen belardi batetara abiatu ginen landareen, intsektuen eta loreen gidak gurekin hartuta. Behaketan erregistro orri bat eraman genuen ikusitakoa bertan idazteko.

Belaze bat bilatzeko zailtasunak eduki genituen gehienak jabetza pribatukoak direlako. Asti ingurura abiatu ginen eta bertan landu genuen gaia. Polinizatzaileak ere ikusi genituen, intsektu eta zomorro ezberdinak eta lore eta landare mota ugari ere. Oso gustura ibili ginen.

Beste talde bat Santa Barbara inguruan burutu genuen gure ibilalditxoak. Bertan lurraren azterketa eta landare eta zomorro ezberdinak ezagutzeko lanketa burutu genuen. Horretaz gain, bertako landareen herbarioa osatu ere.

LH 5-6

Landare itsutasuna

Landare itsutasunaren arrazoiak bat, herri barruko belazeetako belarra sarritan mozten dela da. Honen harira, **Loratu Herria** izeneko jarduera bat burutu dugu. Aukera izan dugunok, eskolako belardian eremu bat moztu gabe utzi dugu bertako biodibertsitatea aztertzeko. Eta belarrik ez genuenok, herriko belaze zati bat erabili dugu horretarako. Eremua hesitu eta belarra hazten utzi zaio. Konparaketa egin dugu, aurretik eta ondoren aurkitutako egoera aztertuz. Identifikatutako landareekin fitxak osatu ditugu.





Bestetik, gure inguruko berdeguneak aztertzen aritu ginen. Hauek mapa batean islatu eta ondorioak atera ondoren, ikusi dugu berdegune txoko batzuk badaudela, baina orokorrean eraikuntza asko daudela eta berdeguneak aukeran gutxi. Zarauzko udalak kudeatzen dituela jakin dugu eta tartean mozketa lanak egiten dituela berdegune hauek txukun mantentzeko. Hau dela eta, lorerik ia ez dago belardietan. Kontuan izanik loreak polinizazioaren bidez ugaltzen direla, erleak eta beste intsektu batzuk lagun dituztela, eta jakinik loreak ez badaude polenik ez dagoela, erleak eta hainbat intsektu desagertzeko arriskuan daude. Guzti honek ekosisteman desoreka sortu dezake.

Beste talde batek egun pasa egin genuen Biotopotik Mollarrira eta parrokia ondoko “Rosaleta” parkean egon ginen. Azken urteetan Zarautz herria asko aldatu dela ikasi dugu; herrigunean urteak atzera, berdegune eta baratza gehiago zeuden. Gaur egun, etxe asko eraiki dira eta hormigoia da nagusi.

DBH

Bigarren hizkuntzako ikasleok baserrietan belarrak duen garrantzia landu dugu. Baserriak ez balego arazo larriak biziko genituzkeela konturatu gara. Adibidez: bertako baratzak desagertuko lirateke, merkatu plaza hutsik geratuko litzateke, bertako produktuak desagertu eta supermerkatuek kanpotik ekarri beharko lituzkete produktuak produktu freskoak jateko aukera galduz eta Euskal Herriko historia eta izaeraren elementu garrantzitsu bat galduko litzateke.

Aztertutako gaien artean, landare itsutasunaren arazoa landu dugu ere. Zarauzko dunak, fadura eta kanping ingurua ezagutzeko irteera bat egin dugu talde batek Arkamurkako laguntzarekin: dunen ezaugarrien inguruan aritu gara, bertako landaretza, duna inguruko landare babestuak zeintzuk diren... Zaintzen ez bada ekosistema berezi eta garrantzitsu hau, desagertzeko arriskuan dagoela. Askotan, gertu ditugun landareetan, inguruneaz, animaliez... ez garela konturatzen eta ez ditugula baloratzen eta zaintzen jabetu gara.

Hauetaz gain, zeharka ere ikastetxe barruan lanketa ugari egin ditugu:

- Mendira daramaten bideak eta horien inguruan dauden larreak aztertuz, ikasturte amaierako irteera egin dugu.
- Negutegiak eraiki ditugu bertan baratzki eta landarean jarriaz.
- Landaretzan giza jarduerak duten eragina ikertu dugu, metodo zientifikoa erabiliz.
- Hondakinen gaia lantzen aritu gara “Katuska eta Katilu” antzezlanaren ikusi ondoren.


BATXILERGOA


Kultura zientifikoa ikasgaien Dukenea parkean hesitu genuen eremuaren azterketa burutu dugu. Bertan ikusitako landareak aztertu ondoren, konturatu gara lorategiak ez badira moztzen bioaniztasun ugaria dagoela. Denbora gutxian asko hazten da bioaniztasuna, baina ziklo hori guk apurtzen dugu. Guk aztertutako lorategian bioaniztasun urria dago. Landare gutxi dago eta lorategiak moztuz gero are eta gutxiago. Landareak moztzen baditugu bizitza moztu egiten da eta landareak beharrezkoak ditugu oxigenoarentzat eta polinizazioarentzat.

LANBIDE HEZIKETA

Ikastetxean, sendabelarren tailerra burutu dugu. Horren aurretik, kahoot ezberdinak egin ditugu sendabelar ezberdinen inguruan beraiek identifikatzen ikasteko eta paseotxo batzuk ere eman dituzte Vista Alegrek parkean sendabelar espezie ezberdinak identifikatuz. Horretaz gain, “amonaren botika” izeneko txokoa ere izan dugu ikastetxean. Kafe makinaren ondoko kortxoan, errezeta ezberdinak jarri ditugu belar ezberdinek nola lagundu dezaketen buruko minaren aurrean, lasai egoteko....


Eta azkenik, birziklapenarekin ere lanean aritu gara eta horretarako ere kahoot ezberdinak egin ditugu batez ere, guk sortzen ditugun hondakinak nola sailkatu behar diren ezagutzeko.





TXIKIPEDIA

Gipuzkoako beste 50 ikastetxeekin batera burututako proiektua izan da. Landareen itsutasunak dakarren arazoa larria dela ohartu gara, ezagutza garrantzitsua galtzen ari garelako. Gure kasuan ere horretaz konturatu gara, gertuen ditugun loreen izenak ere ez ditugu ezagutzen! Hori dela eta, ikastetxe guztien artean Txikipedia osatu dugu gure inguruko landareei buruzko informazioa sarera igoz. Horretarako, ikastetxe bakoitzak aztertutakoen artean, esleitutako 2 landareen informazioa idatzi dugu Txikipediara igoz.



ZARAUZKO EA2030 LOGOA

Garapen Jasangarrirako Helburuak direla eta, 2030 arte gutxienez erabiltzeko asmotan, logo bat sortzeko proposamena jaso genuen. Ikasleen arteko Foroan egindakoak aurkeztu ziren eta horien artean bat aukeratu zen. Hemen ikus daitezke adibide batzuk.





IKASLEEN ARTEKO FOROA

Ikasturtean zehar egindako lanketa, Ikasleen arteko Foroan partekatzen dugu. Aurtengo egoerak hobera egin duenez, berriro elkartzeko aukera izan dugu. Beraz, maiatzaren 25ean bateratu genituen egindako lan guztiak.

Guk hartutako konpromisoak ere batzeko aprobetxatu dugu, dekalogo bat eginez.

1. Ez ditugu soroak, belardiak eta baratzeak zapalduko eta markatutako bideetatik joango gara (oinez, bizikletan...).
2. Ez ditugu gure hondakinak lurrera botako eta hauek behar bezala birziklatuko ditugu.
3. Bidean topatzen ditugun zaborrak jasotzen saiatuko gara.
4. Bertako eta sasoiko produktuak baserritarrei edota herriko denda txiki eta merkatuetan erosiko ditugu.
5. Belardi eta berdeguneetan dauden landareak eta animaliak zaindu eta errespetatuko ditugu: ez ditugu hartuko, ez ditugu hilko, animaliak bakean utziko ditugu, ez dugu haien bizitokia puskatuko...
6. Ikastetxean, herrian edota eskualdean antolatzen diren natur ekintzetan parte hartuko dugu.
7. Irteeretan gure zelaigune eta ingurunea ikertzen eta ezagutzen jarraituko dugu, landareengan atentzioa jarri eta pixkanaka hauek identifikatuz.
8. Baratzen erabileran interesa jartzea eta parte hartzea.
9. Baserritarren bizimodua ezagutu eta errespetatuko dugu.
10. Mendian parrillada bat egiten badut, sua ondo itzaldu behar dela gogoraziko diet arduradunei.

PROPOSAMENAK UDALERA


Udalari zuzenduriko proposamenak Ikasleen arteko Foroan elkartu eta lau taldetan banatu ditugu. Jasotako bozka kopuruen arabera ordenatu ditugu. Hauek izan dira aukeratuak:

SORTU

- Urbanizazioak gunen berdeekin uztartuz orekatzea.
- Hain beste etxe eraiki beharrean, Zarautz erdialdean naturgune berde bat ezartzea bertan atseden hartzeko...
- Lore eta zuhaitzei txartelak ipini identifikatzeko (izen zientifikoa eta izen arrunta euskaraz). QR bidez ere egin daiteke. Horien erabilera pedagogikoa bultzatu.
- Bizikletan ibiltzeko ibilbideak jartzea mendian.
- Eko-eskola bat sortu ikasle ekologikoak bihurtzeko.
- Vista Alegren dauden landare, zuhaitz edota loreen espezieen izenak jarri karteltxoetan.
- Herrian, belaze bat egotea gustatuko litzaiguke, bertan jolasteko. Eta ez utzi txakurrei sartzen, kakaz betetzen direlako. Horientzako beste bat sortu daiteke.
- Herrian lorategi botaniko bat jartzea, herritarrok landaredia aztertu eta ezagutzeko. Adibidez, Abendaño zonaldean.







Hau izan da ikasturte honetan egindako lanketa. Datorren ikasturterako aukeratua dugu zein helburu garatu, zazpigarrena izango da, Energiari buruzkoa. Azken aldian gai honetaz asko hitz egiten denez, interesgarria izango delakoan gaude.

Eskerrik asko zuen arretagatik!

